




xa **sencillamente** transformar la realidad



Pobreziari aurre egitea, premiazkoa

HausNarketa

Badira bi hamarkada **urriaren 17an Pobrezia Deuseztatzeko Nazioarteko Eguna** ospatzen dela. Data horren inguruan gizartea mobilizatu eta bidezkoagoa den eredu baten aldeko konpromisoak aldarrikatzen ditu. Horren helburua gizaki guztiok bizitza duinagoa izatea da.

Aurtengo data oso garai larrian iristen zaigu eta Caritasek jakitera eman duenez, krisialdia oso modu lazgarrian astintzen ari da gure inguruko jendea. Izan ere, pobrezia zabaldu, areagotu eta iraunkor bihurtzen ari da.

Datuak deigarriak dira, baina harago joz, zenbakien atzean dauden pertsonengan pentsatuko dugu: Espainiako biztanleriaren %22 pobrezia mailaren azpian bizi da eta azken urteotan kide guztiak langabezia dauden familien kopurua laukoiztu egin da (1,7 milioi). Honekin batera, diru-laguntzen murrizketak gaur egun 583.700 etxetan inongo diru-sarrerarik gabe bizi behar izatea ekarri du.

Honen guztiaren arrazoiaren artean langabezia eta beharrak asetzeko nahikoa ez den gizarte-babes ereduak daude. Baina oker ibiliko ginateke krisialdi honetatik ateratzeak berehalako aldaketa ekarriko duela uste izango bagenu, oso gogoan dugun iraganak kontrakoa argi erakusten baitu; 2007ra arte Espainiak bizi izan zuen gorakada ekonomikoak ez zuen desoreka eta pobrezia deuseztatzeko balio izan, dirudunak are aberatsago bihurtu zitezkeen baizik.

Pobrezia eta gizarte-desoreka ez da behin-behineko kontua, **errotik aldatu** beharreko auzia baizik: eredu sozial eta ekonomiko zehatza jartzen du kolokan. Eta bidegurutze honen aurrean bi irtenbide daude; amore eman eta gizarte hautsian bizi edo ekin guztiok batuko gaituen etorkizunaren alde, non inor ez baita pobrezia zigortua izango.

ekintza

Hilabete honetako proposamenak bi ikuspegi ditu: bidezkoagoak izango diren mundu eta gizarte baten alde mobilizatzea eta pobrezia jasaten ari direnekiko elkartasuna adieraztea.

Lehenik eta behin, **Pobrezia aurkako Egunaren** baitan urriaren 17an (edo aste horretan zehar) zure hirian burutuko diren **ekintzetan parte hartzea** gonbidatzen zaitugu. Informazio gehiago eskuratzeko sare sozial edo GKE-en herri taldeetara jo dezakezu, edota www.pobrezacero.org web orrialdean kontsulta egin. Horrez gain, **egun batean irabazten duzuna** pobrezia aurka egiten duen elkarte bati ematea proposatzen dizugu. Dagoeneko baten bati laguntzen badiozu, urrian ematekoa gehitzea eskatzen dizugu.